

## ITZULTZAILE-INTERPRETEEN LANA GERTUTIK

- **Jakintza adarra:** Arteak eta Giza Zientziak
- **Campus:** Araba
- **Ikastegi antolatzailea:** Letren Fakultatea
- **Gradua/k:**  
Itzulpengintza eta Interpretazioa
- **Garapen-lekua (helbidea):** Unibertsitateko Ibilbidea,  
5. 01006 Vitoria-Gasteiz

### 1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

---

Harrera eta Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasketen azalpena.

Bisita gidatua Fakultate eta Campusaren instalazioetara.

Itzulpengintzari buruzko praktika bat laborategietan egin (itzulpen memoriaren erabilera, itzultzeko tresnak), eta Interpretazioari buruzko praktika bat egin (interpretazio-kabinen erabilera eta itzulpen modalitateak (aldi-berekoa, esaten ostekoa)).

### 2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

---

- Itzulpengintza eta Interpretazio ikasketen eduki orokorra.
- Itzulpengintza eta Interpretazio ikasketen irtenbide profesionalak.
- Itzulpengintzaren praktika Fakultatean.
- Interpretazioaren praktika Fakultatean.
- Praktikari dagokion atala garatzeko, ikasleak Itzulpengintza eta Interpretazio laborategietara eramango ditugu. Azalpen teorikoak Gradu Aretoan edo Areto Nagusian emango dira.
- Bisita gidatua laborategietara eta Arabako Campuseko azpiegituretara.

### 3. EGINGO DIREN EKINTZAK

---

1. Azalpen teorikoak  
Ikasketa hauek hautatzen dituztenek, 4 urtetan zehar zer-nolako edukiak landuko dituzten azalduko zaie (ikasketa programaren azalpena, lantzen diren irakasgaien zergatia, etab). Bestalde, itzultzaile eta interpreteen irteera profesionalen gaineko azalpenak ere emango zaizkie. Horretarako,

fakultate honetan ikasi duen, eta dagoeneko lanean ari den ikasle bat gonbidatuko dugu, ikasle berriei bere esperientziaren berri eman diezaien.

## 2. Laborategiko praktikak

Itzulpengintza: itzulpen laborategiak eskaintzen dituen abantailak erakutsiko zaizkie (itzulpen-memorien erabilera, filmak itzultzeko tresnak, etab.) Azpigituluak egiteko tresnak. Graduako irakasle bat arduratuko da aurkezpenaz.

Interpretazioa: interpretazio-kabina batean nola lan egiten den erakutsiko zaie. Horretarako, fakultateko ikasleekin kabinetan sartu, eta ariketa praktikoak egin ahalko dituzte. Graduako irakasle bat arduratuko da aurkezpenaz.

## 4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordutegia	Plazak
2025-01-16	Euskara	Arratsaldez	16:00-18:30	25
2025-01-16	Gaztelania	Arratsaldez	16:00-18:30	25